

ERAKUNDEAREN DATUAK

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	ITELAZPI SA
2. Sektorea:	<input type="checkbox"/> Telekomunikazioetarako sozietate publikoa
3. Langile kopurua:	17
4. Webgunea:	www.itelazpi.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>ITELAZPI irrati- eta telebista-seinaleak garraiatzeko zerbitzuak eta telekomunikazio publikoen zerbitzuak emateaz arduratzen den euskal enpresa publiko bat da. Horrez gain, telekomunikazio-azpiegitura publikoak ere kudeatzen ditu. Hori guztia punta-puntako teknologiaren bidez, kalitatezko zerbitzua emanez, berdintasuna eta hizkuntzen kudeaketa sustatuz, pertsonak babestuz eta ingurumena errespetatuz egiten du.</p> <p>Broadcast operadore gisa, EiTb Taldearen bikaintasun-aitorpena jaso nahi du ITELAZPIk. Halaber, tresna publiko den aldetik, euskal administrazio publikoaren erreferentziazko organismoa izan nahi du telekomunikazio-zerbitzuen arloan.</p> <p>Honako hauek dira gure balio nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Bezeroa eta gizartea izatea helburu.- Ingurumena babestea.- Genero eta pertsonen berdintasuna.- Hizkuntza-kudeaketa: elebitasun orekatua.- Pertsonak egotea gure jardueraren erdigunean- Punta-puntako teknologia erabiltzea gure zerbitzuetan.- Prestakuntza-maila handiko langileak izatea.- Bikaintasuna eta berrikuntza.- Gardentasuna eta eraginkortasuna.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Amaia Bizkarguenaga Jugo
Helbide elektronikoa:	abizkarguenaga@itelazpi.eus
Telefonoa:	944032300


PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	HIZKUNTZA IRIZPIDEAK – “EUSKARAZPI” GIDA LABURRA
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Idea ona iruditu zitzaigun ITELAZPIren hizkuntza irizpideak biltzen dituen HPO-aren laburpen bat egitea eta bertan plantilla guztiarentzako erabilgarriak edo aplikagarriak diren irizpideak batzea. Hizkuntza irizpideen gida laburra. Langileak gidaren sortzeko prozesuaren partaide egiteko gainera lehiaketa bat prestatu genuen bai azalerako irudia eta bai gidaren izenburua aukeratzeko. Lankideek proposamen ugari egin ondoren izenburu hautatua EUSKARAZPI izan zen eta irudia ondorengo argazkietan ikusten dena.</p> <p>Gidan esan bezala HPO-n dauden irizpide nagusiak eta denentzako aplikagarriak direnak biltzen dira. Liburuxka formatua dauka eta alde batetik zabaldua euskaraz dago eta beste aldetik zabaldua gaztelaniaz (liburuxka berean).</p> <p>Paperezko formatuan daukagu mahai gainean kontsulta azkarrak egiteko.</p> <p>Formatu elektronikoan ere badaukagu INTRANETEAN euskararen txokoan. QR kode bat ere sortu genuen eta bulegoan leku desberdinetan jarrita daukagu bai langileek eta bai kanpotik datorren jendea modu erraz baten deskargatu eta kontsultatu ahal izateko.</p> <p>Langileok eskuragarri dauzkagu irizpideak eta errazago egiten zaigu zalantzarik eduki ezker kontsultatzea. Gida bizirik dago eta tarteka irizpideak garatzen edo gehitzen doazen heinean aldatuko dela argi daukagu. Horregatik “etxean” egin dezakegun formatu batetan sortu dugu.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Hemen aipatutako gidari buruzko argazki batzuk:



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA